


ttipi-ttapa

1992.eko Otsailak 20

80. zenbakia

dohain banatzen da



AURTENGOZ AZKENAK

Publizitaterik onena preziorik ttikienean

*Zeren... ba al dakizu Leitzatik Berara eta
Baztandik Doneztebera dauden 5 etxeetatik 3tan
ttipi-ttapa hamabostero hartzen dutela*

MODULO BAT

1.200 Pzta.

HIRU MODULO

3.600 Pzta.

SEI MODULO

6.650 Pzta.

BI MODULO

2.400 Pzta.

HAMABI MODULO

12.075 Pzta.

non - zer

-
- 4 AGENDA** Beharrezko telefonoak eta hurrengo alea argitaratu arte inguru hauetan gertatuko diren bilera, erakusketa, ibilaldi, ikastaro, musika kontzertu etabarren agenda.
-
- 7 HONTAZ ETA HARTAZ**
-
- 8 IRAKURLEAK MINTZO**
-
- 9/24 HERRIZ HERRI**
Herrietako berriak: Bortziriak, Malerreka, Sunbilla, Bertizarana, Baztan, Zugarramurdi, Urdazubi, Sara, Leitza, Goizueta...
-
- 25 KIROLAK:** Maila handia erakutsi zuten eskualdeko korrikalariak Nafarroako kross txapelketan.
-
- 26 ERREPORTAIA:** Etxe batetik bertzera, euskara mintzatzeko era arras desberdinak daude
David Anaut
-
- 28 ELKARRIZKETA:** Anuntxi Agesta: "Hartzeko, lehenbizi eman...", Arkupeak elkartean eta Etxalarren jubilatuen animatzailearekin solasean.
Pello Apezetxea
-
- 30 MERKATU TTIKIA**
-

ttipi-ttapa

HAMABOSTEKARIA

Lege Gordailua: NA-1324/85
Tirada: 4.900 ale

Herriko Etxeko Plaza, 1
31780 BERA
Tfnoa.: 63 11 88
Faxa: 63 12 91

Erredakzio arduraduna: Josemanuel Irigoien **Publizitate arduraduna:** Miren Karmele Tolosa **Erredakzio taldea:** Aitor Arozena, Juainas Paul Arzak, Patxi Larretxea, Pello Astiz **Ale honetan parte hartu dute:** Roman Harribilaga, Oskar Txopereña, Pello Apezetxea, Jon Larretxea, Txema Aldabe, Alizia Olaizola, Iban Isasi, Koro Irazoki, Margari, Sara, Natalia, Txema Urrotz, J. Igarabide, Antton Erkizia, Juana Mari, Patxi Petrirena, Olhain Elkartea, Esteban Arozena, EHNE Nafarroa, Josetxo Susperregi, Goiko Argazkiak, Mena Argazkiak, Zaldua Argazkiak, Mattari, Fermin Altzuguren eta Enbido-k. **Argitaratzailea:** *ttipi-ttapa*. **Laguntzaileak:** Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Nafarroako Gobernua, Eusko Jaurlaritza.... **Inprimategia:** Gertu Kooperatiba Elkartea (Oñati)
ttipi-ttapa aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzunkizunik.

Beharrezko telefonoak

SOS Nafarroa / Urgentziak...088/061

OSASUN ZENTRUAK

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

KONTSULTAK

Arizkun453039

Gartzain580451

Oronotz-Mugaire592024

Ituren450183

Sunbilla450283

Goizueta514067

Igantzi637755

Arantza634131

Bera.....630929 / 630036

Etxalar.....635105

Urdazubi.....599130

ANBULATORIOAK

Irun630264/621106

OSPITALEAK

Irungo ospitalea614600

Nafarroako ospitalea.....102100

SSko urgentzi zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia109400

Gurutze Gorria.....226404

ANBULANTZIAK

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka (larrialdiak).....(943)464622

Doneztebe (larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Lesaka.....637404

SUHILTZAILEAK

Oronotz-Mugaire592044

GARRAIOAK

Bidasotarra630279

Baztanesa580129

Leitzarain515018

HIRUGARREN ADINARENDAKO**ZENTRUAK:**

Elizondo580730

Lesaka637154

Bera630261

ABERIAK:

Iberduero450335/450336

W Botikak

► **Otsailaren 22-23an**, Arantza, Narbar-te eta F. Lezaun (Elizondo).

► **Otsailaren 29-Martxoaren 1ean** Lesaka, Sunbilla eta F. Iturralde (Elizondo).

W Dantzaldiak

► **ELIZONDO**, otsailaren 23an **AKELA-RRE** taldearekin.

► **ELIZONDO**, martxoaren 1ean **ALASKA** taldearekin.

► **LESAKA**, otsailaren 23ean **IZADI** taldearekin.

W Bestak**IÑAUTERIAK**

► **SARA**, Otsailaren 29an eta martxoaren 1ean.

► **ZUGARRAMURDI**, Martxoaren 1, 2 eta 3an.

► **BERA**, 22an kaldereroak, martxoaren 1ean «Joxelu Anaiak» eta 2an «Inguma» eta «Elizatxo» txaranga.

► **DONEZTEBE**, Otsailaren 27tik martxoaren 1a bitarte.

► **LESAKA**, martxoaren 1ean eta 2an «Gaubela» taldea. Zakuzarrak igandean.

W Deialdiak

► **ARANTZA**, otsailaren 20an Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Aholkularitza Batzordearen bilera.

► **ARANTZA**, otsailaren 27an, Bortzirietako Euskara Mankomunitatearen Batzorde Erabakikorraren bilera.

► **BORTZIRIETAKO EUSKALTEGIA**. Jakinerazten da: Euskaltegi honen ohizko tfoa - 637796- ez dabilela eta bitartean, 627513 eta 627553 tfoen bitartez jar daitekela euskaltegiarekin harremanetan.

W Bota bertsoa**DANI NARBARTE****Gaia:** Elurra**Neurria:** Zortziko Haundia

Elur zuriak leku guztiak
gainezka utzi balitu
ta eskolara ez joateko
aitzaki hoiek banitu
gauean kriston elurra pila
kalera ezin mugitu
gustora aste bat osorako
giro epelan gelditu.

Jende askok hemen baduela
elurretako astia
nahiz ta hurrena eskien gainen
aurrean hartu guztia
garrantzizkoak ere ibiltzen dira
bano bat esatia
erregek ere eskiatuaz
hartu bait zuen ostia.

AGENDA

Hitzaldia k

► **BERA**, otsailaren 25ean, arratsaldeko 7etan Hezkuntza Erreformari buruz, Koldo Elizalde emana

Zinemak

► **DONEZTEBE**
Otsailaren 22-23an, "Las edades de Lulú".
Otsailaren 29 - Martxoaren 1ean, "Libertad para morir".

► LEITZA

Otsailaren 21ean, gaueko 10,30etan "Gringo viejo".

Otsailaren 23an, arratsaldeko 4,30etan "La última cruzada de Indiana Jones" eta 7,30-etan "Gringo viejo".

Otsailaren 28an, 10,30etan, "El marido de la peluquera".

Martxoaren 1ean, arratsaldeko 4,30etan "Poli de guardería" eta 7,30etan "El marido de la peluquera".

Gastronomia

LEGATZA ANTIXOA SALTSAN

Osagaiak

4 lagunendako:

4 legatz xolomo, 4 hiruginar xerra, 2 arraultze gorringo, 1/4 litro esnegain, 2 antxoa lata.

Legatza xolomoak, hiruginar xerra batekin bakoitza



Hilario Sukilbidek emana
ELGORRIAGAKO Ostatua

labean sartu. Bertze alde-tik, arraultze gorringoak es-

negainarekin batitu, antxoa lata bat hartu eta antxoak ongi zanpatu ondoren, aurrekoari erantsi eta suan paratu egosten.

Legatza egina dagoenean, antxoa saltsa gaintetik botako diogu eta hiruginarra puskatua.

Limoia, perrexila eta antxoa enroilatu bat xolomo bakoitzean paratuko dugu, apaingarri gisa.

Baserriko feria

► ZERRIKIA

•Zerrikumea (20 kilokoa): 7.700 pzta. **Zerri gizona** (95-100): 187 pzta/kilo **Zerramak**: 90 -110 pzta./kilo bizirik.

► BEHIKIA

•Aretze gizenak:

Idixkoak: Pzta/kg. Kanal Extra.....530
1.koa.....480
2.koa.....450

Urruxak: Pzta/Kg. Kanal Extra.....540
1.koa.....500
2.koa.....450
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 300 Pzta./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 360 Pzta /Kg. Kanal.

•Aretze ttikiak

(15 egun inguru):

Nabarrak: urruxak 12.000 eta idixkoak 22.000 Pzta.

Mestizoak: urruxak 22.000 eta idixkoak 32.000 pzta

Datu-iturria: EHNE-Nafarroa



MALDAERREKA S.A.
FUNERARIA ZERBITZUAK

Bittiria karrika - Tfnoa: 637404- LESAKA

LEGARRA

PAPERTEGIA
TABAKOAK
LIBURUAK
OPARIK

Legarrea 9, Tfnoa: 637030 LESAKA

❖ Zure ingurua klase guzitako insektuz (xomorro, zinaurre, armiarna, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoaz garbitu nahi baduzu, deitu!
Gu arduratuko gara horretaz!

Tfnoa: (948) 63 01 55


- BERA



Europako lehena
ostalaritzarako
garbiketa produktuetan

Tfnoa: (948) 63 01 55 BERA





Blanka Blas
Doneztebeko tabernaria

- ▶ **Gazte garaia, zaila ala erreza?** Erreza.
- ▶ **Oraingo gaztedia ala ordukoa?** Gaurko gaztedia.
- ▶ **Ameriketan ala Euskadin bizi?** Bietan ongi bizitzen da.
- ▶ **Ezkontzea ala ez ezkontzea?** Bakotzak berea aukeratu behar du.
- ▶ **Bordaxoko musika ala ostatuetakoa?** Ostatuetakoa nahiago dut.
- ▶ **Jende gaztea, lanean ala ikasten?** Lanean.
- ▶ **Kalimotxo, zerbeza ala mosto?** Kubata Ron Bakardi.
- ▶ **Benidorm, mendia ala Expo-92?** Mendia.
- ▶ **Euskara, Doneztebarrentzat ala inguruko herritarrentzat?** Denontzat.
- ▶ **Zubietako Inauteriak ala Doneztebeko bestak?** Zubietako inauteriak.
- ▶ **Doneztebeko bestak ala beste herrietakoak?** Doneztebeoetan lan egin behar izaten dut.

▶ **Human Touch**
eta **Lucky Town**
Bruce Springsteen
1992 EEBB

Egoera pertsonal larria gainditu ondoren eta lau urte musika aldetik ixilik egon eta gero hemen datorkigu "boss" berriro eta bi diskekin gainera.

Hamar hilabete iraungo duen gira bat ere programatua du munduan zehar; gira horretan Espainia eta Euskadi ere sartuak omen daude.

«*Human Touch*» eta «*Lucky Town*» dira disken izenak eta rockero honen bi estilo hoberenak azaltzen dira: akus-

tikoa batean eta elektriko bertzean. Martxoaren erdi aldean salgai paratuko dituzte bi diskak mundua osoan.

Bere azken diska «*Tunnel of love*» orain dela lau urte atera zuen betiko "E Street Band" taldearekin.

Oraingoan talde hortako bi partaide eta bere emaztea den Patti Scialfa bakarrik ditu, gainerakoak berriak.

«*Human Touch*» hamargarren diska izanen du Brucek; bi hoietatik komertzial eta elek-



trikoena hamalau abestiek.

«*Lucky Town*» berriz, intimistagoa da, 1982an egin zuen «*The River*» diskaren musikara hurbiltzen da nahiko.

Gira honetako kontzertuak akustikoak iza-

nen dira, leku ez sobera haundietan, 4.000 edo 5.000 persona, kopuru "tope" bezala.

MARIANO

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA



trebeki

jostailuak - eskulanak

Sebastian Errazu 1(943) 61 83 97 IRUN

Erakusten dugu:

- ◆ Makrame
- ◆ Tridimensional
- ◆ Saskigintza
- ◆ Telar
- ◆ Eskaiola margotu
- ◆ "miga de pan"



Loradenda, bitxikeriak,
opariak, eskulangintza

Bittiria, Tfnoa: 62 75 42
LESAKA




EUSKALDUNA JATETXEA

Tfnoa.: 63 03 92
BERA

«Laminaciones de Lesaka» enpresak isurketa berri bat egin zuen erreka

Otsailaren 12an, goizez, Biurrana errekaletik hedatzen zen gasoil usaiak salatzen zuen gertatutakoa. Oraingoan, erreka gasoilak urean ematen duen brilloaz eta olio mantzez estalia ageri zen. Ez da lehen aldia. Bainan azkena noiz?



Lekarotzko UBIko ikasleek Koxkonta Jatetxean bi pertsonentzat afari bat egiteko Otsailaren 1ean egindako zozketan, 2.156 zenbakia irabazi zuen.

Turismorako kontsorzioaren estudioa mahai gainean

22 alkate-kontzejal bildu ziren Bertizen



Otsailaren 11an, Bidasoaldeko 22 alkate eta kontzejal bildu ziren Bertiz-eko Turismo bulegoan. Bileraren arrazoi nagusia, Servitur izeneko enpresak eskualderako prestatzen ari duen estudioaren aurkezpena izan zen. Aipatutako estudioan, turismoari buruzko azpiegituren nondik-norakoa aztertuko da. Dirudienez, proposatzen dena gauzatzeak 18 milioitako kostua izanen

duke eta Nafarroako Gobernua, Komertzio Ganbara eta eskualdeko Udalen artean ordainduko litzateke zati berdinetan. Dena dela, Nafarroako Gobernuak turismoaren inguruan dituen proiektuak argitzeko, Juan Cruz Alli lehendakaria etortzea eskatua dute aspaldian bertako udalak. Nolanahire, martxoaren 17an bertze bilera batean agertuko dira herriz-herriz hartutako erabakiak.

INFORMAZIOA:

- ✍ Nominak
- ✍ Aseguro Sozialak
- ✍ Lan-kontratu bonifikatuak
- ✍ Enpresa berrien sortzea
- ✍ Diru-laguntzak
- ✍ Errenta Deklarazioak
- ✍ Kontabilitateak

ARTEKARI S.L.

ASESORIA FISKAL ETA LABORALA

KONTSULTAK, AINTZINETIK ORDUA ESKATUZ

LESAKA:

- Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
- Non: MALDAERREKA S.A., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

- Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L., Tfnoa: 17 55 40
- Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.



DIPUTAZIOARI

Leitzetik Perralekura doan errepidea konpondu zenuten eta Basa-Kabiraino oso ondo dago. Basa-Kabitik Perralekura doan bidea berriz, oso arriskutsua dago, zeren eta oso kuneta haundiak daude. Kunetak gehiago bete beharko lirateke, brea oso kapa lodian bota bait zenuten, eta koska haundia gertatzen delako. Autoak ez dira gehiegi baztertzen bildurra dutelako, eta kamioiak ibiltzen direnean, leku asko behar dute eta gaizki moldatzen dira baztertzeko beste auto batekin topatzean. Elurrarekin

ere, oso irristakorra izaten da errepidea eta kunetan sartu ezker, oso zaila da hortik irtetea. Orain dela gutxi konpondu zenuten errepidea, eta kamioi bat baino gehiago sartu da iadantik kunetan. Ateratzeko gruakin eta beste kamioi batzuekin ibili dira gainera.

Gure eskaera go-goan hartuko duzue-lakoan agurtzen zaituzte:



Gidariak

"HAMABOSTALDIKO JOKALDIAK" IDAZTEN DITUEN JAUN EDO ANDEREARI

78. *ttipi - ttapan*, lehen aipatutako atalari, jokaldirik txarrena "eskiazterakilo soberarekin joaten zirenentzat" izan zen. Zer gertatzen da, orain ezin dugula gure airera eskiatzen ahal ere? Edo mundua kiloetan ongi daudenentzat bakarrik eginda dago? Gainera ez zinen izaten ahal gogorragoa

"arrisku extra" garelaren zenuenean eta gero "tanke": batekin konparatzerakoan. Nire ustez horrelako kritikarik ezin dira egin, niri bederen min eman dit hori irakurtzea. Espero dut gurekin ez sartzea ge-

hiago. Agur bero bat eta zorionak *ttipi-ttapa* eder honengatik.



E. R.

72.674.634

Oharra

Eritzi ezberdinek tokia izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi

duenaren izena, telefonoa, helbidea eta NANren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, erredakzioak bere esku izanendu horretarako eskubidea.

AMETS LIBURUAK

Liburu bildumen Banatzailea

Ikastola, eskola, elkarte, kultur etxeetako liburutegiak osatzeko behar diren bilduma guziak, prezio bereziki

631267 tfnoan harremanetan jarri

OKAVE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, yogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA



- Diskoak,
- Metodoak,
- Musika-Tresnak,
- HI-FI soinua,
- Soinu Profesionala,
- Ekipoen Alokairua...

“Inauteriak-92”aren egitaraua prestatua dagoeneko

Kaldereroak 22an, ortzegun gizen 27an, Inudeak eta artzaiak 1ean eta mozorroak 2an


ROMAN HARRIBILAGA

Azken urteetako ohiturari jarraituz, egintzez beterik dator aurtengo Ihauterietarako Gure Txokoa Elkartearekin batera Udala Batzordeak prestatu duen egitaraua.

Inauterietako programa Kaldereroen konparatsaren ibilaldiarekin hasiko dira otsailaren 22an arratsaldeko 7etatik aintzineraren Inauteriak, herri-afari batekin segitzeko “Ricardo Baroja” ikastetxean arratsateko 9etan. Otsailaren 27an, ortzegun gizen, OHOKo 3 ikastetxeetako ikasleak “Inudeak eta Artzaiak” taldea osatuz herrian barrera ibiliko dira arratsaldez ere. Helduen “Inudeak eta artzaiak” taldea, berriaz, martxoaren 1ean aterako da goizeko 10etan Eztegarara frontoiatik. Egun



Guzira lau egunetako egitaraua izanen da



Jende ugari bildu Kultur Etxeko hitzaldira

berean, arratsaldeko 8etatik gauerdiko 12etara, “Joxelu Anaiak” taldeak joko du Altzate plazan. Astelehenean, zingararraultze eta arratsaldeko 8etatik aintzineraren, Mozorroren ibilaldia; arratsaldeko 7etatik arratsateko 10ak arte eta 11,30etatik 2ak arte, musika Altzaten “Inguma” taldearekin. “Elizatxo” txarangak emanen die bukaera Ihauteriei 7,30etatik 11ak bitarte eskeiniko duen musikarekin.

Nekazaritzaz hitzaldia Kultur Etxean

“Europako Nekazal politika eta bere eragina Euskal Herrian” hitzaldia eskeini zuen otsailaren 13an Kultur Etxean EHNE - Nafarroako lehendakaria den Mikel Petrirenak, L.H. Institutoak antolatutako hitzaldi zikloaren barruan.

Bortzirietatik etortitako entzuleei European orain arte garatutako nekazal

politikaren eraginaz nekazari ttikiengan hitzegin zuen hizlariak. Ondorioz, politika honen erreformatzeko beharra eta euskal nekazariak une honetan bizi duen egoera aztertu zituen Petrirenak.

□ Bere “Jabeturik”koa eman dio Udaltzak aho batez Bortzirietako Euskara Mankomunitateak aurtengorako aurkeztutako euskararen plangintzari eta 18.044.089 pztako aurrekontuari.

B RADIO BIDASOA



expert

RADIO BIDASOAk errex jartzen dizkizu gauzak:

- * Zure elektrogailua, TB, bideoa, etab, aukeratzeko laguntzen zaitugu.
- * Dohainik instalatu eta erabiltzen erakutsiko dizuegu.
- * 3 urtetarako garantia
- * Suterako eta lapurretaren aurkako aseguruua.
- * 36 hilabete bitarte dituzu ordaintzeko.

Kanttonberri 1, Tfnoa: 630377 - **BERA**

GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Martxotik aintzineraren, boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 **BERA**

LESAKA

Gainean dittugu Iñauteriak

Hilaren 29an hasita martxoaren 3a arte, zakuzarrak (igandean), karrozak (astelehenean)...

AITOR AROZENA

Hilaren 29an (larunbata) ikusiko dira lehenbiziko mozorroak eta asteartera arte bizituko da besta giroa aurtengo Iñauterietan. Igandean, zakuzarrek ohizko ibilaldia egingen dute herrian zehar, frontoian jantzita Plaza zaharrean bukatu arte.

Astelehenean berriz, karrozen desfilea egingen da eguerdian eta asteartean, baserritarren egunean, Goitarrak eta Fraindarrak ibiliko dira baserriz baserri. Aipatu behar da, bai igandean eta bai astelehenean, dantzaldia izanen dela, plazan «Gaubela» taldearekin.

Urteroko ohitura jarraituz, aintzineko ortzegunean, Ortzegun Gizen egunez egingen da "Arraultze - arraultze". Egun honetan herriko gazteak, etxez etxe ibiliko dira eskean.



Golfistak ez ezik, golfo dextente ikusteko aukera izanen dugu aurtengo Iñauterietan mozorroturik Artxiboa

“San Fermin”en Asanblea orokorra

“San Fermin” Jubilatuta eta pentsionisten elkarteak Asanblea Orokorra egin zuen hilaren 15ean, Kasino jatetxean. Bertan, iazko diru kontuen berri eman zitzaizen sozioei (46.840 pztako superabita izan zuten) eta aurten egin beharreko ekitaldien programazioa ere aurkeztu zen.

305 sozio biltzen dituen elkarte honen lehen ekitaldia, Iñauteri igandean (martxoaren 1ean) Kasinon egingen duten afaria izanen da. Baita ere, urtarrilan hasita abendura arte adintuentzako gimnasia ere egiten ari dira.

Bertalde, hainbat bidai antolatu dituzte eta Aste Kulturala, Ekainaren 7tik 14ra egingen dute.

ttipi-flash

□ **Frontoian** argi instalazio berriaren obrak egiteko deialdia zabaldu du Udalak.

□ **DYA** erakundeak, lehen guardia zibilaren kuartela zen tokian zabaldu du egoitza berria.

□ **ESK-CUIS** sindikatoak AHVren egoera dela eta, batzarra egin zuen hilaren 15ean Arranon.

□ **Telebista** zale bazera, herritarrak ikusteko aukera izanen duzu laister. Hilaren 18an, Iñaki Perurenak aurkeztzen duen “Herriko plaza” programarako grabazioa egin zuten lesakarrak eta beratarrrak. Hilaren 27an berriz, Juan Luis Aleman agertuko omena da TVEko “*Noterías que es peor*” saioan.

□ **Laminaciones-en** huelga burutu zuten langileak hilaren 13an, AHVko bertze zentroetan bezala.

XATURETXEA FONDA
Tfnoa.: 63 70 27 LESAKA

KAMINERO OSTATUA
Beheko Plaza 1, Tfnoa: 637243 - LESAKA

Deñe
LENTZERIA MERTZERIA
Tfnoa.: 62 75 14
Beheko Plaza 8, LESAKA

BEKO ERROIA
Lore eta landareak
Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESAKA

ONIN Agentzia
Albistur 53
Tfnoa: 637359
LESAKA

- Aseguruak eta kontabilitatea
- Errenta eta IVA deklarazioak
- Eskrituren likidazioa
- Edozein aferetarako ofizina
- Zuzarren-en kolaboratzaileak

IRUBIDE OSTATUA ERRETEGIA
Tfnoa.: 63 71 27 LESAKA

Zahar etxeko erien zaintzea, familiaren ardura izanen da

Horrela erabaki du Udalak, Berako ospitalea haunditzeko proiektua bete bitartean

PELLO APEZETXEA

Zahar Etxean bizi dena erituz gero, gau ta egun zaindu beharra izateraino, Berako ospitalera eramanez, han sendatu arte egonez. Hala dio Zahar Etxeko arau edo normak. Orain, ordea, ez dago Berako ospitalean lekurik izanen dela pentsatzerik ere, haunditzeko proiektua bete arte. Bitartean, zer egin?. Udalak erabaki duenez, familiak jabetu beharko du eria zaintzeaz, gauez batez ere, gaitza gainditu arte. Ezinduz gero ere, toki berria aurkitu arteko zaintza berezia familiak hartu beharko du bere gain.



11 langile ari dira Jauregiko Bordenoko pirutegian PELLO Argazkia

Pirutegia aintzinera

Jauregiko Bordenoko pirutegiak dagoeneko 11 langile baditu bertan ari direnak. Piruak Frantziatik ekarri dira gehienak orain arte, Zuñigatik ere etorri direlarik. Hiru-lau kilokoak

ekartzerakoan, 5-6 kilokoak izaten dira hiltzerakoan, hogeit bat egunez bazkatu ondotik. Epe hau, dena den, ez da beti berdina izaten. 2.500-2.800 piru sartzen dira pirutegian al-dian, nahiz eta horretan ere

gora-beherak izan sasoi batetatik bertzetara. Hil eta lumatu ondoren, Martikok erosten ditu.

Paper erreziklatua erabiliko da

Erabili eta zaborretara botatuko paperez berregindako papera erosi du Udalak, ingurukoek bezala, arbola guttiago bota dezaten horrela paper fabriketarako.

Garraio agentzia Antsolokuetan

Transportes Doimaleok eskatutakoaren arabera, garraio agentziarako baimena eman du Udalak, Antsolokueta auzoan, Etxemañoli etxean irekiko dena.

BITTIRIA HARATEGIA

Bittiria 43 - Tfnoa: 627555
LESAKA

EKAITZA CAFE

GOSARIAK, BERENDUAK, TERRAZA

Lagunekin elkartzeko toki egokia

Tfa: 948 - 627547
Plaza Berria 13 - **LESAKA**

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - **LESAKA**

KOXXKONTA

Sagardotegia zabalik



Sagardotegia Erretegia

Ezkontza, bataio, bileratarako leku egokia (200 pertsona)

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - **LESAKA**

EROSLE

LESAKA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena zugandik hurbilago

Bittiria 67 - Tfnoa: 637264

IGANTZI

Jende poliki izan zen Biltokiko Batzarre Nagusian

Juntak hemendik aintzinera, 12 partaide izanen ditu

OSKAR TXOPERENA

130 bazkidek hartu zuten parte, edo hobekiago erranda, egon ziren bertan urteko Biltokiko bilera nagusian.

Puntu gehienak arazorik gabe atera ziren aintzineran, baina pare batetaz gehixeago solastu behar izan zen. Adibidez, ostatua bestatan nola paratzeaz baziren ikusteko moduz ezberdinak. Batzuk, orain arte bezala jarraitzearen aldekoak ziren, hau da, sozioek kamarero lanak betetzea txandaka eta sortez. Bertze batzuk, aldiz, ostatua subastan ateratzekoaren aldekoak ziren. Azkenean, juntak gai honetarako besta



Bertzalde, otsailaren 21 eta 22 ospatuko dira inñauteriak. Argazkia, duela urte batzuetakoa da.

aintzinetik bilera bat presatzea erabaki zen.

Junta berria aukeratua m e n d i k aintzinera

12 partaide izanen ditu gainera. Lauri tokatzen zi-

tzaie segitzea lehen zudenetatik: lehendakari-ordea, Luis M^a Zelaieta; idazkaria, Bea Migelena; bokalak, Lander Sein eta Lourdes Etxeberria. Aukeratu berriak: Lehendakari,

Iñaki Goienetxe; diruzaina, Mari Eugi; bokalak, Mikel Retegi, Marijoxe Zelaieta, Ramon Alzuri, Marilo Gerra eta Bea eta Joxean Lizardi. Eskuak lanera!

Udalaren bandua

Bandu berri bat zabaldu du Igantziko Udalak, erreka bazterretan plastiko, kartoi, zaku, botila edo edozein gisatako zaborra botatzea debekatuz.

Gauza jakina izanen zen hori dagoeneko jendearentzat, baina ez dago gaizki tarteka gogoratzea, lan horietan segitzen duenik badago eta.

GOZOTEGI - JAZONE

Itzea 3, 630786 - BERA

KLOXKA

Legia 11 - 63 06 64 BERA

LAINO

HAUR JANTZIAK
OINETAKOAK
ETXERAKO ZAPATILAK

San Esteban 37, Tf: 631063 - BERA

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA

BORTZIRI

Itzea 4, behea - BERA
Tfnoa: 63 10 91

- * Asistentzia teknikoaren zerbitzua
- * TB, Bideo, HI-FI eta elektrogailuen konponketa
- * Bakarkako, kolektibo edota satellite bidezko antenak ere paratzen ditugu

KATTU

OSTATUA
JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 LESAKA

Bortzak Bat Kooperatibak kontuematea izanen du 22an

Afari batekin ospatuko dute inbertsio guztiak kitatzea

JON LARRETXEAA

Datorren larunbatean egingen du Bortzak Bat Kooperatibak bere urteroko biltzarra eta gai nagusia urteko balantze ekonomikoa izanen da. Halere, aurtengoak badu berezitasunik. Afari eder batekin ospatuko baitute bilkura hori. Eta zergatik hori? Ba, zazpi urte bete dira Bortzak Bat Kooperatibak inbertsio haundiak egin zituela, bajera bat erosi eta egokituz eta handik guttira lau silo eder eginez. Inbertsioak zirela eta, prestamoak hartu eta sozio bakoitzak diru kopuru bat jarri beharrean egon zen. Aurtengoan zulo hori dendena kitatzea lortu da eta



Zazpi urte bete dira Bortzak Bat Kooperatiba martxan jarri zela

baita sozio bakoitzak jarritakoa itzultzea. Beraz, badute ospatzeko motiborik.

**REM delakoaz,
Bortzirietako Ikastolen
eskaera onartua**

Jakina den bezala, he-

mendik aintzinerara 12 urtetik 16tarakoentzat ziklo berri bat irekiko da. Ziklo hori emateko aukera izateko laguntza eskatu zuten Bortzirietako Ikastolak. Arantzako Udalak aho batez onartu zuen. Bainan

PNVk eskola guztiak aukera berdina izatea bultzatu zuen eta HBk, berriz, euskal eskola publikoaren alde jotzen duten proiektuak bakarrik bultzatuko dituela azalduz.

14 urte arte Gai berarekin
Arantzan segituz,
Arantzako

Udala eta Eskola bat heldu dira 14 urterarte bertan irakasteko aukera lortu behar dela eskatzerakoan. Beraz, horretan indar egiteko gelditu ziren.

**Maurdingoborda
erre da**

Halere, kalteak tikiak izan dira. Baserrian ez zen inor bizi eta suak ganbara eta teilatuan egin zituen kalterik nagusienak.

ATERPE
jatetxea

Mendi ibilaldietarako Mountain bike bizikletak
alokatzen ditugu
Tfnoa.: 63 41 79 - ARANTZA

Ostatu
Jatetxea

BETi - JAi

Askain 1, Tfnoa: 63 08 10 - BERA

EKAITZA OSTATUA

Altzate - BERA

**MANOLO
TABERNA**

Edari Banatzailea

Errefreskoak, Ura,
Ardoak, Likorrak,
Txanpaina

Tfnoa: 63 10 27 - BERA

Hilabete bat zeinen labor den

Arretxenbordako Joxe Mari eta Patziku, Ameriketatik bisitan etorriak

PATXI PETRIRENA

Labor egiten ari omen zaie behinpeinurei herrian pasatzen ari diren denboraldia. Izan ere, orain dela 25 urte inguru joan zirenetik bisita bakanak egin bait dituzte, sorlekua, familia eta lagunak ikusteko. "Hemen gustura egoten da" diote sukaldeko xokoan, nahiz beren bizitza Ameriketara izan oraingoz. Harat itzuliko dira berehala, igeltsero eta zurgin lanetan segitzeko. Colorado estatuan dute bizilekua eta lana berriz estatu aunitzetan egin omen dute, bertze sunbildar bat dutela enkargatu, Joxe Antonio Zugarramurdi "Xakito".



Otsailaren 25ean berriz Colorado aldera aterako dira



Mendietako basurdeak ugaltzeko asmoz, etxe inguruan hazi eta hezitako basurdeak

Etxalartarekin haserre

Argazkian ageri diren basurde hauek etxe inguruan hazi eta hezitako umealdikoak dira. Ehiztari

kuadrilak egin zuen lan hau, mendietako basurdeak ugaltzeko asmoz. Bada, orain, bakarren bat hil omen dute deskuidoan, baina lehengo aldi batean

etxalartarek borts hil omen dituzte, ehiziko eguna ez zen batean gainera, eta hagitx haserre daude sunbildarrek. Etxalartarek zer dioten jakin beharko.

Juan Meoki naiz:

Balin baduzue trasteak etxe barrenean edo ate ondoan eta buruko mine maten baduzue hek ikusteak, abiso emanazue Irurritako telefono honetara

45 20 35

eta kendiko dut gusto ederrean eta ezautzen garelaik seguru nago, zuek eta ni izain garela betiko lagun ederrak.

Zuek hor zate, ni hemen nago. Zuen deia esperuan nago. Biher baino nerretako gaur hobiago.

COMERLAV
S.L.

HEZETASUNA... komertzio, biltegi edo almazen, etxebizitza, garaje etabarretan...
DANTHERM lehorgailu berriei esker, hezetasuna kontrolatu eta kentzea garantizatua dago.

ETXE BERRIETAN

DANTHERM lehorgailuen bitartez, etxe berrietako paretak, zolak eta tetxoen lehortze prozesua nabarmenki azkartzen da, gero, pintatu, parketa jarri edota bertzelakoak egin ahal izateko.

Salmenta eta alogera
Joaquin Beunza 10, Tfnoa: 13 15 27

IRUÑEA

Erreka zokoak zabortoki bihurtzeko maniak jarraitzen du

Iñauterien ondoren, serioegiak ote dira berriak?

JUAINAS

Iñotik joanak, bertsolari saioak momentuz akituk, zer dugu bada kontatzeko modukoa?

Burua sobera estutu gabe, hiru aipamen eginen nituzke, hiruak desberdinak baina zaharrak, neurri batean. Bata da zenbait ohitura zahar eta txar gordetzeko mania, **erreka bazterrak zabortoki** bihurtzeko gogo, alegia. Ikazpeko parean eta Aingeru iturri hurbilean zerrapila, burni eta porkeri bota beharra dagoela dirudi. Karriketan, berriz, **nagusi berri-zaharrak** agertu dira, berriro ere: egurra hemendik, arbak handik... tiraka, tiraka, nora ailegatu



daiteken probetan. Ayuntamientoak beltzatu beharko du muturra!

Askoz ere errazagoa du, zentzu horretan, Ministerio de Trabajo delakoak. Berriemaile ona izanen du inguruetan, dudarik gabe, beti jakinen gainean etor-

tzen bait da, informazioz jabeturik eta toki konkretuetara: Errandonea, goiko ostatua zena..., **salaketa berriro?**

Solas motiboa izandu da, aditu dudanez, **Udal dependentzien garbiketarako** plazaratu zen

konkurtoa, merkeenari eman beharrean garestiena aukeratu bait zen... Influentzien trafikoa? Argitu beharko da konkurtoa batetan ez dela dirua bakarrik begiraten. Zerbitzuaren kalitatea lortu nahian kostoarekin parekatzen da eta neurketa horren araberrako adjudikazioa egiten da. Bakoitzak bere iritziak begiratzuz ematen du botoa. Lau izan ziren. Bi baten alde, bat beste baten-tzat, eta laugarrena, abstenitu zen. Beste bi, parte zirela eta, atera ziren, eta zazpigarrena ez zen agertu plenora.

Serioegiak atera ote dire berriak? Iñotitako festondoa?



GAZTANDEGIA
Etxeko Ardi Gazta

Petxenekoborda
Tfnoa: 45 08 62
SUNBILLA



PEDRO LANZ
BURDINDEGIA

Tfnoa: 637879
LESAKA



ttipi-ttapa
HAMABOSTEKARIA

Zure publizitatea 15 egunero 5.000 etxetara
zabaldtu nahi baduzu, deitu 631188ra

MENDI HOTELA



DONAMARIATIKO BEHTA

Jatetxea

Tfnoa: 450925 / 450708 - DONAMARIA

DONEZTEBE

Otsailaren 27, 28, 29 eta martxoaren 1ean Iñauteriak

Inoiz baino jende gehiago parte hartzen ari da prestaketetan

TXEMA ALDABE

Aurtengoak inoiz ez bezelakoak izanen direla dirudi, prestaketetan jende aunitz ari baita parte hartzen.

Otsailaren 27an, osteguna, 7etan Kasinotik atera eta herriari itzulia. Ezkurra erretegian afaria.

Otsailaren 28an, 9etan baserrietan barna puxkak biltzen, Ezkurra erretegian bazkaria eta arratsaldez baserrietako ibilbidea eta aurrendako dantzaldia eta txokolatada. Ameztian afaria eta euskal poteoa.

Otsailaren 29an, goizez, herrian zehar buelta txarangarekin, bataioa eta bazkaria Santamarian. Karrozen eta mozorrodunen desfilea. Mozorro politenak eta talde hobenak sariak izanen dituzte.

Martxoaren 1ean, Arozenan gosaria, eguerdian karrozak, Arozenan baz-



ZALDUJA Argazkiak



Otsailaren 29an, larunbatez, karrozen eta mozorrodunen desfilea izanen da arratsaldeko 3.30etan

karia eta arratsaldez joku desberdinak eta dantzaldia plazan.

Zahar Etxea dela eta...

Otsailaren 10ean bildu zen lehen aldiz afera honi irtenbidea emanen dion batzordea. Hau, Ongizateko 3 pertsona (Juan Luis Lerga, ekonomista bat eta arkitekto bat) eta Lesaka eta Doneztebeko Osasun Etxetako mediku bana eta ATS banak osatuko dute. Honetaz gain, "Hogar del

Jubilado" delakoaren etorkizunaz solastu zen.

Autoen inspeksioa egitera Iruñera joan behar izaten dugula eta EAK mozioa aurkeztuko du Bortziariak-Baztan eta Malerreka Udaletan, Nafarroako Gobernuari inguru honetan inspeksioa egin ahal izatea eskatuz.

Ekainaren erdialdean Donezteben ospatuko da odol-emaileen jaialdia, bertara 1.500 pertsona hurbilduko direlarik.

Udal langilegoaren konbenio aldaketa eman da. Orain Nafarroako Gobernu konbenio laboralean sartu dira 3 langile. Hauek lehen bulego eta despatxoaren konbenioan sarturik zeuden.

"Paso cebra" delakoaren zutiko seinalizazioa paratuta dagoela baina karretera zolan holakorik ez dagoela eta zenbait jende kexu azaldu da, batez ere, haurrek horren premia dutelako.

Arroparen

Merkealdiak
 San Migel auzoa 27,
 45 08 83 - DONEZTEBE

KAMAMILA
DENDA NATURISTA
 ❖ Mediku kontsulta naturista
 ❖ Sauna (ordua eskatuz) eta masajista
 Merkado Errepidea, 2. Tfnoa: 451 528 - DONEZTEBE

Beatriz
ILEAPAINDEGIA
 San Miguel, 450922 - DONEZTEBE

- ❖ Ileapaindegirako ordua eskatu
- ❖ Solarium-a
- ❖ kalitateko perfumeak
- ❖ Bitxitegi fina

ARROPA ETA OPARI DENDA
 Tfnoa: 451540
 Mercaderes 9
 DONEZTEBE

Maika Ariztegi, bigarren aldiz Nafarroako txapeldun

19 urtetako Lasagako laisterkalariak, kross proban irabazi zuen

IBAN ISASI

Bigarren aldia da Lasagar neska honek titulu hori lortzen duela. Inaute-rien kontu egunean besta egin zuen arren argi dago hurrengo egunean Maikak bizkor zituela hankak. Zorionak eta segi bizkor.

Nekazal bideen proiektua gibelera

Otsailaren lehenean ospaturiko udal plenoan atzera bota zen Nekazal bide edo "Caminos rurales" delakoaren proiektua.

28 miloietako presupuestoa zeukan proiektu

honek, eta hauetatik ia 20 miloietako subentziona-tuak ziren. Hemendik mi-loi bat proiektua egiten gastatu da. Bide hauek elizarako bidea, Iturengo auzotikan, Aurtiz auzorako bi sarrerak, Iturengo Landako bidea, Mixeltenea eta Altxuneko bordetarako bi-deak ziren.

Ituren auzoko argiteria martxan

Hilaren 12an, asteaz-kenean, martxan jarri zen.

Kaletako argiteri lanak ia bukatuak daudela erran daiteke 3 auzoetan.



Maika Ariztegi, Lasagako laisterkalariak bigarren aldiz irabazi du Nafarroako kross txapelketa

Lur komunalekin bueltaka

Gobernuko peritoak Untzalekuko eremu komunalak markatu zituen

TXEMA URROTZ

Orain modan dagoen gaia dugu hau, herri gehie-netan ari baitira arazo honekin bueltaka. Zorionez Urrotzen ez da arazo larria, eremu gutti baitira soluzio beharrean daudenak.

Duela guti Gobernuko peritua egon zen bi egunez eta Untzalekuko eremu komunalak markatu zituen,

bidenabarrean partikular batzuk ere eginez.

Su egurra

Hau jartzerakoan su egur loteak markatzear daude eta laister prest egonen dira ekartzeko ere. Aurtengoan bigarren aldia da lotea ematen dela, oraingoan zurak eraman eta gelditutako punta eta adar-rrak aprobetxatuz.



TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa.: 45 04 91

Nerea Oinetakoak
San Miguel 2, DONEZTEBE

ARESO

Iñauteriak asko aldatu dira azken urteotan

“Lagunartea” n gizon-emakumezkoak sartzen dira eta jendea mozorrotzen hasi da

JUANA MARI SAIZAR

neskak ere sartu dira. Ikusten denez, denen artean giro goxoagoa egiten da.

Aipagarria iduritzen zaigu jende asko mozorrotzen hastea; umeak, gazteak eta jende larria. Beharbada toki askotan hau oso normala da bainan Areson berriki hasi da jendea mozorrotzen aspaldiko partez.

Larunbatean afaria antolatzen da nahi duen guziarentzat eta jende asko biltzen da, giro goxoa eta goizalderarte festa polita sortuz. Izan ere, festa hobereena gaueko orduetan sortzen baita, mundu guztiak bere lotsak alde batera utzi eta festa barruan sartzen denean.

Duela urte batzuk, bakarrik igandea, astelehena eta asteartean ospatzen ziren bainan denborarekin, asteburura pasatzea pentsatu zen, asteburuan gazte guztiak herrian izaten baitira. Aresotar guziok elkarrekin antolatzen ditugu ihotik. *“Lagunartea”*, lanerako prest dagoen jende mordo da, otorduak prestatu, etxez-etxe eskean ibili eta denen artean festa polita antolatzeko. Guziak blusa berezi batzuekin jazen dira. Berriki arte *“Lagunartea”* gizonzkoek osatzen zuten bainan orain



NARBARTE

Herriko Ostata otsailaren 1ean ideki zen

Kontzejuak moldatu eta subastan emana du bi urtetarako

TXEMA ALDABE



Joan den otsailaren 1ean jarri zuten martxan Herriko Ostata.

Almandozko Astinzelai baserrikoak dira subastan bi urtetarako hartu dutenak eta honez gero, bazkariak eta afariak ematen dituzte bertan.

Eskaria baldin bada, etxebizitzak egingo ditu Udalak

Bestalde, hilaren 22an burutuko da Umore Ona elkartearen Batzar Orokorra

ESTEBAN AROZENA

Egun hauetan kaleratu den berri batek dioenez, dagoeneko Udalak harremanak izan ditu VINSAs (Viviendas de Navarra S.A.) erakundearekin Goizuetan etxebizitza berriak eraikitzeko posibilitateak aztertu asmotan. Hortarako, zenbateko beharra dagoen jakitea omen da lehenengo pausoa, eta demanda hori zehaztatzearen nolabaiteko inkesta bat martxan dago, famili guztietara bi orri banatu direlarik asmo hauen berri emanaz.

Interesatuak, eskatzen diren datoak zuzen betetakoan Udaletxera eraman



Umore Ona elkarteak, urteroko batzarra egingo du hilaren 22an

behar dituzte aipaturiko orriak. Dena den, informazio gehiago nahi izanez gero, Herriko Etxean bertan galdetzea nahikoa da.

Alkateak zioenez, hainbat arazo sortu omen

daitezke prozesu honetan. Adibidez, inkestak adieraziko balu etxe berrien beharra badagoela, bizitza hauek egingo liratekeen lurren jabeekin akordio batera ailegatu beharko da

lehenik. Bestalde kontutan izan behar da, VINSAs beste herri batzuetako eskariak badituela atzeratuak eta haiek lehenetasuna izango dutela noski. Hala ere, aipaturiko inkestak erantzun haundia jasoko balu edozein formulak erabiltzeko prest omen dago Udala, herritarren garrantzizko behar hori betetzearen.

□ **Hilaren 22an**, larunbata, Umore Ona elkarteak urteroko ohizko Batzar Orokorra burutuko du, presidente berria hautatzea delarik gaietariko bat. Bazkide berrien zerrendan bi emakume daudenez, zer esanik sortuko du, noski, batzar honek.

EZKURRA

Ihotetako kronika

Duela 7 urte egin ziren azken aldiz

M^a JESUS GASTEARENA

Aurten bai ospatu ditugula Ihoteak, nahiz eta zazpi urte izan azkena egin zela. Hiru egunez trikitilariak Herriko Ostatuan giroa sortzen ahalegindu ziren.

Larunbata goizean, ohitura den bezala, "Ingu-rua" egitea erabaki zuten bi taldetan; batzuk herrian etxez-etxe eta besteak ba-

serrietan. Ondoren, bazkaltzeko orduan denak ostatura bildu ziren. "Barranka" jatetxe osoa betetzen 50 lagunekin, gazte, zahar eta gainontzekoak.

Bazkaldu ondoren Telleria eta Mendizabalek bertso xeble ugari bota zituzten eta segidan trikitilariak.

Hurrengo egunean amaiera eman zitzaion ihoti. Ez dago zalantzarik ere



Gazte jendeak oso ongi pasa zituen Ihoteak

SOTIL

datorren urtean ihoteak berri-
ozpatzeko, aurten jen-

de gazteak oso ongi pasa
baitu.

BAZTAN

Iñauteriak: arazo guzien gainetik bizitzeko gogoaa...

Halere, nekazariak ez dute motibu haundirik ospakizunetan ibiltzeko

JOSEBA IGARABIDE

Azkenean euria. Ordua zen egarritzen hasiak bait genituen Baztango bazterrak. Hormen ondotik hegoaizeak mendian gelditzen ziren elur pixarrak kendu zituen. Bainan otsailaren 13an dena bere bidera bildu zen. Otsaila negu gogorra, euria, hotza eta elurra.

Nekazariak badute zer pentsa eta zer egin. Europatik heldu diren haizeak bortitzak eta gogorrak dira gure eremu goxo honek jasotzeko. Esne kuota onartezinak, badirudi aintzinerak doazela zeren eta estatu espainoetik joan zen ordezkariak, bertan kontsumitzen den esnea bertan produzitzea lortu gabeko akordioa sinatu baitu. Lotsagarria! Portugalek, Italiak edo Irlandak esne kuotatan dituzten berexitasunak badirudi Euskal Herriak ez dituela eskuratuko oraingoaz. Aretze eta behi haragia ere behiti doaie, klenbuterol eta kanpoko haragiaren eraginez. Bildotsak eta ardi esneak ere urte txarra.



Baztango bazterrak egarritzen hasiak ziren, baina hilaren 13an hasi zen hain beharrezkoa zen euria



Mikel Petrirena, EHNE - Nafarroako lehendakariak Europako Ekonomi Elkarteko nekazaritzaren etorkizunari buruz hitz egin zuen otsailaren 15ean San Martin eskolan

EHNEk hitzaldia burutu zuen 15ean

EHNE sindikatuaren eskutik joan den Otsaila-

ren 15ean hitzaldi bilera bat izan genuen San Martin eskolan eta bertan nekazari ugariaren aintzinean

Mixel Berekoirigoiak eta Mikel Petrirenak Europako nekazaritzaren etorkizunari buruz hitz egin zigten. Bertan, iparraldeko esperientzi baliagarriak eta Europako nekazari sailburuak jarri behar dituzten baldintzei buruz hitzegina zuten. Iparraldeko esperientziak eta azken negoziazioei buruz ere baita.

Iñauteriak

Arazo guzien gainetik jendeak bizitzeko gogoak azaltzen ditu han eta hemen. Iñauteriak egoeraren ispilu batetan bihurtzen direlarik. Anitz eta Berroetako iñauteriak elkarrekin ospatu zituzten joan den larunbat-igandean. Era berean, Zigan, ostiralean haurrak orakunde eguna izaten dute eta ondotik, larunbatean, gazteak eta ez hain gazteak Iñauteak egin zituzten. Etxez etxe mozo-roak bazkari eta afari ederrik ere ez zen falta izan Baztango Basaburuako 3 herriotan.



(hurrengo orrialdean segitzin du)

MENDIALDE Jatetxea



Etxeko gasnak saltzen ditugu Dantxarinearako bidean, 66. kilometroan AMAIUR Tfnoa: 45 30 60

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939 ELIZONDO

Udaberriko telak eta arropak

Bertso afaria izan zuten Azpilkuetan, hilaren 8an

Xebastian Lizaso eta Iñaki Murua izan genituen 90 bat pertsona bildu zituen afalondoan

JOSEBA IGARABIDE

Joan den larunbatean, hilaren 8an, 90 pertsonek bertso afari ederra ospatu zuten Azpilkuetan, bertako elkarteak antolatutako. Zahar eta gazte, gizon eta emakume, Xebastian Lizaso eta Iñaki Muruaren bertsoekin girotu ziren afalondorenean eta bazter batzutan batek edo bestek bere saioa egin zuela ikusten genuen.

Trikitixa bat ere egon zen, dantzara animatu nahi izan zuten guztientzat.

“Administrari laguntzaile” berria

M^l Lourdes Iturburuak 6 hilabetez kontratatzea erabaki du Udalak “Administrari laguntzaile” lana betetzeko.

Desinfekzio lanak, adjudikatuak

«Desinfecciones Bera» enpresari eman zaio arratoi hiltzea eta desinfekzio lanak egitea zaborte-gian, eskola konzentrazioan eta piszinan (1992 eta 1995 urteen artean) eta mataderoan 1992 eta 1993 urteetan.



Azpilkuetan ederki pasatu zuten elkartearen egindako bertso afarian



Arizkongo Txuputo karrika moldatzeko dirulaguntza eskatu dio Baztango Udalak Nafarroako gobernari

□ **Mediku etxea** izandakoan “haurtzaindegia” egiteko proiektua prestatu

beharko du tekniko batek, 1992-93 ikasturtean martxan paratzeko asmoz.

W ttipi-flash

□ **Arizkongo** Txuputo karrikako espaloiak edo azerak berrizetik akabatu dute berriki. Orain, Balleko Etxeak karrika bera moldatzeko laguntza eskatuko dio Nafarroako Gobernuari.

□ **Arizkunenea** Kultur Etxean martxoko hilabetean “*Itsasontzien Modelismoa*” izeneko erakusketa eginen da. Erakusketa honen aurrekontua 90.000 pztatakoa izanen da.

□ **Ornoz-Mugairin** lantegiak altxatzeko Udalak prestatu gogo dituen lur-eremuak erosteko, Nafarroako Gobernuak 20.956.000 pzt. aintzindu dio Udalari, guzira kostakoa den %70a eta hamar urteetan itzultzekoa interesik gabe.

□ **Arraiotzen** sei paperontzi berri paratuko dira lehengo zaharrak kenduz.

□ **Sei zaborontzi** haundi eta bertze hamar bidrioarendako erostea erabaki du Udalak, orain arte eskeintzen zen zabor bilketa zerbitzua hobetzeko.

• Etxetik mugitu gabe ardoa erosi nahi baduzu

- Botilatuta eta botilatuta gabea
- Markako ardoa...

deitu 45 32 66 11nora.
AZPILKUETA

ERRATZU
OKINDEGIA

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

Esquisaroi
jatetxea

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

OSKORRI
LIBURUDENDA

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRE

SARA

«Zazpiak Bat»-ek bere gain hartu du musika erakaskuntza

Gaita eta txistua ikas daiteke, larunbat arratsaldetan

OLHAIN ELKARTEA

Zazpiak Bat taldeak bere gain hartu du musika erakaskuntza eta hauek izanen dira ikastaroak:

- Gaita, larunbat arratsaldetan, Daniel Crouspeyre Baigorriarra eta Pierre Haira Uztaritzekoa. Hiru ikaslek jarraitzen dituzte ikasgaiak.

- Txistua, larunbat arratsaldetan, Pantxika Aramendi erakaslearekin.

Euskal Kantu Xapelketa

Aurten Sarako zortzi bat gaztek lehiaketa hortan parte hartzeko xedea luke. Lehen aitada, Hiriburun iraganen da, Lapurdiko kanporaketen karietarat



Otsailaren 29an eta martxoaren 1ean ospatuko dira Ihauteriak

ARTIBOIA

maiatzaren 31ean. Zorionik beroenak aintzinetik talde berri huni eta ez direlakoan hortan geldituko... Oroitarazi behar da jadanik elebidun ikastetxeko haurrek parte hartu izan dutela xapelketa hortan duela urte batzu.

Gau goxo baten aipamena

Omordian, Otsailaren 22an izanen da afari bat, Zazpiak Bat eta Rugby eskolak antolatuz, azkeneko *ttipi-ttapan* aipatu bezala Kortsika ugarterat egitekoa duten bidaiaren

gastuen pagatzeko behar diruaren erdiesteko. 80 liberentzat jaten ahalko da eltzekaria, paella, ardi gasna, koka, kafea eta ondokoa. Arrats goxo hau Etienne Pikasarrrik alaituko du bere akordeoiarekin.

Herriko Ihauteriak

Otsailaren 29an eta martxoaren 1ean ospatuko dira. Larunbatarekin gazteak ibiliko dira auzoz auzo, etxez etxe, batzu zaldiz, bertzeek dantzak eskainiz etxeko jaun eta anderei. Aldiz igandean, goizeko 11tik goiti izanen da giro plazan: soinu, soka dantza, euskal dantzak, zaldizkoak baita ere mementuan ezin salatuak diren bertze ekitaldi berezi batzu.

Ezkontzetako erreportaiak argazkiak eta bideoa
 Tfnoa.: 58 01 55 - Santiago 40
 ELIZONDO

Eta orain, zure koloretako argazkiak **ORDU BATEZ ERREBELATUAK** ditugu

FZ
FOTO ZALDUA
Argazkiak, Bideoa, Markoak

- Instalakuntza berriekin,
- roiloen errebelatzea "ordubat" baino gutiagoan egiteko aukera, «Fuji» kalitatearekin

Elizondo Tf: 58 04 91
 Doneztebe Tf: 45 03 64

«**ZALDUBI**»
SUKALDE MOBLEAK



Altzari fabrikazioa eta muntaia

Zaldubia Poligonoa, Tfnoa: 45 20 77
IRURITA - BAZTAN

HERRIKO ETXEKO EDANTEGIA
Michel Guerendiain
SARA - LAPURDI

Iñauterietarako akordiolaria behar da

Martxoaren 1, 2 eta 3an ospatuko dira

KORO eta MARGARI

Martxoaren 1, 2 eta 3an ospatuko dira iñauteriak, baina... hau da seguru den gauza bakarra. Aurten gazteak nahiko "despistatuak" ibilki dira eta oraindik ez dute akordiolaririk bilatu (zu paroan dagoen akordiolaria bazara, bada-kizu norat jo), eta ezta pentsatu ere zein izanen den aurtengo gaia jantziak prestatzen hasteko.




lazkoan Golfoko gerla izan zen gaia. Argazkian bakarrik Saddam eta bere tropa daude, amerikarrak ordukoz "kanpo de batallarat" ganak ziren, osea... ostaturat.

Karririk bukatuxeak

Joan den astean jarri zituzten informazio karte-

lak: plazan bi, leze eta parkinerat gidatzeko eta Laxoineko kurban kanpo-ko kotxei pasoa galeraziz

eta lezeko bidea bakarrik oinez egiteko. Ea hemen-dik aintzina karririk ibil-garriagoak diren.



MANUEL LANZ eta ASOZIATUAK

ENPRESA ASESORIA

- ❖ KONTABILITATEA
- ❖ FISKALA
- ❖ HEMENDIK AURRERA LABORALA
 - Nominak
 - TC₁
 - Lan kontratuak
 - Errekurtsoak

BERA

Eztegara 14
Tfnoa: 63 11 08

Aholku
osagarriak

IRUÑEA

Iturrana 5 -Entrepanta- 6. bulegoa
Tfnoa: 25 93 84

HERRIZ HERRI

EZKONTZAK

Ignacio M^a Baraibar Garmendia eta M^a Asun Arratibel Ontsaló, Areso eta Andoaingoa, urtarrilaren 18an.

JAIOTZAK

Maddalen Belarra Eneterreaga, Donezteben, otsailaren 5ean.
Iñaki Perurena Irigoien, Elizondón, otsailaren 3an.
Oier Telletxea Andueza, Beran, urtarrilaren 26an.
Gorka Arraiago Goikoetxea, Areson, urtarrilaren 29an.

HERIOTZAK

Juan Estanga Bengoetxea, Eratsunen, urtarrilaren 31an, 85 urte.
Josefa Mitxelena, Arantzan, urtarrilaren 11an, 58 urte.
Martin Mikelarena Baleztena, Lesakan, otsailaren 10ean, 80 urte.
Martin Iribarren Urrutia, Erratzu, otsailaren 7an, 81 urte.
Jose Manuel Etxandi Elizetxe, Erratzu, otsailaren 12an, 84 urte.
Estefania Etxebeste Violet, Beran, otsailaren 5ean, 86 urte.
Fermin Alzuguren Alzuguren, Beran, otsailaren 5ean, 94 urte.
Prudentxio Iparragirre Zubieta, Etxalarren, otsailaren 9an, 83 urte.
Mattin Antonio Mikelarena Baleztena, Etxalarren, otsailaren 10ean, 78 urte.

SAROB
okindegia 

SANDERS PENTSUAK

EZTEGARA 41, TFNOA: 63 08 99 - BERA



SANTAMARIA

Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneroko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

MARI LUZ SPORT

ESTETIKA  SOLARIUM

GIMNASILEKUA

Eztegara 17, Tfnoa: 63 04 83 - BERA



KOMUNIOAK


Ia bertan, aurtengo
Komuniotarako errekor-datorioak
aukera daitezke

FOTO GOIKO


Altzate 26, Tfnoa eta faxa: 630515 - BERA

Maila haundia erakutsi zuten eskualdeko korrikalariak Nafarroako kross txapelketetan

Iturengo Maika Ariztegi txapeldun eta Rafa Maritxalar lesakarra bigarren gelditu ziren



Maika Ariztegi Iturendarra



Rafa Maritxalar lesakarra

Maila hagitz polita erakutsi dute gure eskualdeko laisterkalariak, otsailaren 2an egindako Nafarroako txapelketan.

Emakumezkoetan, 19 urtetako **Maika Ariztegi** (goiko argazkian), bigarren aldiz irabazi zuen krossa. 19 urtetako **Rafa Maritxalar**ek berriz, bigarren postua lortu zuen promesas mailan.



Baztango futbolari kadeteak ez dabilta ongi aurtengoan

Baztango kadete futbol taldea ez dabil sobera ongi aurtengoan, 18 partidurik jokatu ondoren azken postuan bait dago, partidurik bakarrik irabazita. Hala

ere, kontutan hartu behar da taldearen gaztetasuna, jokalaririk aunitz infantil adinekoak edo lehen urtekoak baitira. Beraz, animo eta aintzinerari segi.

Hamabostaldiko jokaldiak



Maika Ariztegi Lasagako korrikalaria. Otsailaren 2an egindako krossean Nafarroako txapelketa suertatu zen neska gazte hau, bigarren aldiz. Ez da nolana hiko marka. Segi bizkor!



Laminaciones-en isurketa berria errekara. Alper alperrik gabiltza "vedado de pesca" kartelak paratzen (amorraiak hazteko, nonbait) gero gasoila errekara botatzeko. Ez da arrantza haundirik izanen aurtengoan.

Etxe batetik bertzera, euskara mintzatzeko era arras desberdinak daude

Bonaparte printzeak, bi euskalki nagusitan banatu zuen gure eskualdea

Aunitzetan entzun izan dugu gure ingurutik atera bezain laister euskara asko aldatzen dela. Gipuzkoan egiten dutena ezberdina da. Bizkaiera arrarago egiten zaigu. Iparraldekoa ere berezia da...

Baina gure eskualde honetako euskara ere, bat bakarrik al da? Ez al da herriz-herriz aldatzen?



Bonaparte printzeak bi euskalkitan banatu zuen eskualdea: Ipar Nafarrera garaia eta Lapurtera, hain zuzen. 1869an egindako sailkapenean berriz, Ipar Nafarrera garaian, Araitzkua, Gipuzkoakoa, Bortzerrietakoa eta Bartzangoa desberdindu zituen.

Jakina, guzti honi buruz bakoitzak eduki dezakeen ustea ezberdina izan daiteke, baina, orohar, erran genezake gure eskualde honetan ere aldaketa nabarmenak ditugula eta euskalki eta aldaera ezberdinak daudela.

Herri eta hizkeren artean marratxo eta mugak ezartzea oso egokia ez bada ere, gauzak grafikoki adierazteko beste biderik ez dugunez, metodo honetaz baliatuko gara. Erabi-

liko ditugun sailkapenak Bonaparte printzearen lanetatik atera ditugu, horixe bait da egundaino dugun iturri oparo eta aberatsena.

Bonapartek eginiko azken sailkapenean (1869) honela banatzen ditu hizkera ezberdinak:

Ipar Nafarrera garaia

Bortzerrietakoa: Mallerreka eta Bortzirriak eskualdeak, Sunbilla, Bertizarana eta Mugairi.

Bartzangoa: Baztan, Mugairi ezik.

Araitzkua: Leitza, Areso.

Gipuzkoakoa: Goizueta, Arano.

Lapurtera

Berezkoa: Zugarramurdi, Urdazubi eta Sara.

Beraz, Bonaparteren sailkapenaren arabera, gure eskualdeko herrietan bi euskalki ezberdin erabiltzen dira. Hauek ere ez omen dira guztiz homogeneoak eta azpieuskalki ezberdinak finkatzen ditu. Hain zuzen ere, Ipar Nafarrera



Bonaparte printzeak, Euskal Herriko euskalkiak sailkatu zituen bere garaian

rera Garaiaeren barnean, lau azpieuskalki ezberdintzen ditu gure eskualdean:

Araizkoa, Gipuzkoakoa, Bortzerrietakoa eta Baztangoa, nahiz eta azken honekin zalantza handiak izan nafarrera edo lapurterekin sailkatzerakoan.

Herri bakoitzak, bere hizkera

Beraz, begibistakoa da Nafarroako iparraldeko herrietan egiten diren hizkeren artean ezberdintasunak badaudela, badagoela aldea. Zonaldetik zonaldera aldatzeaz gainera, herri bakoitzak bere hizkera propioa daukala erran genezake, edota, XVI. mendean Joanes Leizarragak *Iesus Christ Iaunaren Testamentu Berrian* zioen bezala:

«...bat bederac daqui heuscal herrian quasi etche batetic bercera ere minçatzeco manerán cer differentia eta diversitate den».

Nolanahi ere, Zugarramurdi, Urdazubi eta Sara ezik, beste guztiak euskalki bakar baten barruan sailkatu zituen Bonapartek, ipar nafarrera garaia delakoan, hain zuzen. Honek esan nahi du ezberdintasunen artean badagoela hizkera guztiak lotzen dituen hari bat, edota batasun itxura hori ematen dien ezaugarri multzo bat.

Hala ere, mapa baten barruan marratxo simple baten bitartez hain erraz adierazten ditugun muga horiek praktikan ez dira horren argiak. Teorian bederen, Erratzuko hiztun bat eta Leitzako beste bat eus-



Herri batetik bertzera, arras hizkera mota ezberdinak solasten dira gure eskualdean

kalki beraren barnean sailkatuko genituzke baina, seguruenik, Erratzuko hiztun horrentzat hurbilago egonenda Lapurteraden Zugarramurdiko hizkera, Leitzakoa baino. Eta agian, Aranotar batek bere hizkerarekiko itxura haundia-

goa aurkituko lioke Heraniko gipuzkerari Etxalarko nafarrerari baino. Esan nahi baita, askotan, mapa batean adierazten dena eta hiztunen aldetik talde bat osatzearen kontzientzia bat ez datozela.

Ideia orokor bat egiten

lagunduko duelakoan, gure eskualdeko hizkerak sailkatzeko erabiltzen den mapa duzue aintzineko orrialdean, eta lerro hauen azpian, Bonapartek egindako sailkapenen kronologia.

Hizkera aunitz, euskara bakarra

Hauxe da, beraz, zalantzak zalantza eta okerrak oker, egundaino erabilia eta onartua izan den sailkapena. Aski garbi ageri zaigu hizkera eta molde ugari erabiltzen direla, baina hori bezain garbia eta nabaria da euskara hizkuntza bat eta bakarra dela.

BONAPARTEREN SAILKAPENA

1861-1863:	Ipar Nafarrera garaia Lapurtera.
1864-1865:	Ipar Nafarrera garaia Lapurtera
1866-1868:	Ipar Nafarrera garaia Lapurtera
1869:	Ipar Nafarrera Garaia Araizkoa Gipuzkoakoa Bortzerrietakoa Baztangoa Lapurtera: Berekkoa

DAVID ANAUT

Anuntxi Agesta: "Hartzeko, lehenbizi eman..."

Arkupeak Elkartean eta Etxalarren jubilatuen animatzailea

Etxalarko Arantxipiko Bordan jaioa, nekazaritza lanetan ikasia, amatxiren itzalean hazi eta hezia, puntu egiten eta josten ikasia, goiz hegan egin zuen bertze herritara, harat-hunat, bizitzaren udazkenean sorterrri eta sortetxera bildu zelarik. Ez, ordea, geldirik egoteko, hemen ere.



Xorroxin irratian berriak emanen ote zenituen, eta zuk, inolako dudarik gabe, baietz, zure 75 urteekin. Nondik zure ausardia?.- *Sinpatia. Euskal Herria dut... itsutua naiz. Ta nik hori Saran bizitu dut, enzima. Ni hemen Euskal Herrian aldekoa, ta gure aita iziarria ta... ba!, denak, gu euskaraz, ez genekiun bertzeikan. Nahiz ta batzutan burla in karaz-kara. Zenbait aldiz erran zioten amari erdaraz iteko... Gure aita zen amerikanoa, «ipurdi urin bustia», itsasogatik, badakizu. Hilaute batez Amerika bidian ikasi zuen*

ta leitzen. Hilaute bat ta gehio pasatzen zuten joateko, bazuten ipurdia urin bustitzeko astiya. Harat joan ta gero, ikasi zun pixkoat inglesa, obligao duik gabe ta, a trancas y barrancas zerbaite; bazun dikzionarioa, oaindik bizi da hemen. Erdaraz gutti zakien. Guré attatxik ez zuen eskolikan, ez leitzen ta ez eskribitzendeus. Gure attatxi joaten zen Sarara bertsutara, eta bertsulari obenexkotik bat, premio irauzi zun, ta «baston de oro» irauzi. Hortik heldu da nere errextasuna.

Arradioan solasteaz gain, Anuntxik idatzi ere

egiten du, Arkupeak aldizkari edo errebistan ikusi dugunez.- *Hori osaba apezakin ikasi nun (D. Teodoro Arburua). Euskaraz eskribitzen. Ta gero beti nere neskaxarrekin eskribitzen nuen nik, euskaraz, harek euskaraz eta nik e bai, euskaraz. Gero berenazkoak iten du aunitz.*

Noiz hasi zinen eskolan?.- *Zortzi urtetan hasi nintzen eskolan, zeren bannituen anaiak eta lehenbiziakoak ziren eskolara joan behar zutenak. Gero heken laguntzekin ni joan nintzen, pixkoat, behar baa, goizxeago: zortzi ur-*

teak izanen nituen. Beino, guk amatxi baginuen, eta amatxikin bai katezismoa eta bai leitzen bagenakien itxetikan ateri bino lehen, amatxik erakutsita. Bazuen berak leitzeko ohitura, elizako lekturak noski denak. Guk otoitzak denak eskolat joan orduko baginakien, bai katezisma ere denbora hetakoa bezala, etxean ikasia. Eskolara joan hori tartian e?. Badie iratze pikatziak, badie belarrin aritziak, badie itzain-mutil eta, lurrean ari gaelikan, mandoekin lurra altxatzen... Nik ez dakit urtian zenbat denboraz joanen ginen. Neguan, klaro,



—“
**Arkupeak
 elkar-
 teak
 asko lagundu
 du jubilatuei,
 zeren bertze-
 naz bazen
 ehun bat jende
 etzienak
 etxetik
 ateako”**

lanetan, Arrian plantatu zuten dendan. Kinto Realen, ezkondu ta gero, bizpahiru urte, eta Barcelonan ondotik bertze hainbertze. Donibanen eman zuen denboraldi luzeena: 20 urte, hotelean «guardian» lanetan. Eta Donibanetik Etxalarrera, oraingoan bertan gelditzera, Arantxipiko Bordan.

Arantxipiko Borda moldatuta etorri ginen hunat bizitzera. Nik kariño haundi baneukan, nik hau beti maite nuen. Nere gurasoen itxia izaitez gain, ni mendikorra naiz, nik mendia ta kanpua behar dut, enaiz kontent bertzetan. «Arkupeak» elkarteetan eta herriko jubilatuen elkarteetan juntan sartua zaude. Jubilatua laguntzen du horrek?. Etxelarkoa aunitz, aunitz lagundu du horrek, eta duik gabe bertzetakoak ere, gauza bera izanen da; asko, asko. Zeren bertzenaz bazen ehun bat jende etzienak itxetik ateako, eta muitukore ta, inork ikusikore etzienak. Eta oain animoa. Dutan pena: ez daki inork ere, ez musean ez briskan, ez punttuan, deus ere. Ta nik zer dakit, orain ni a gusto hasiko nitzake erakusten batzuri. Dena den, jubilatuen horrek seituko du. Bai, bai, gu ez izantare seituko du. Bertzek amodioz hartuko dute eta seituko du. Etxelarkoak benpin, bai.

joanen ginela. Eta hamabi urtik arte.

Karneta ere berandu xamar atera zenuen.-

Hirutanogitabat urtetan. Sei aldiz in nintzen presentatu. Irri asko in zuten, herriko jendiak irri, irringarri baitzen. Eta nik erraiten nien: «irri gibeltik ez ari, trankil in irri». Ta Zerk bultzatu zintuen karneta ateratzera?.-Hunat etortzeko ideiak. Frantzian ina nuen lehenbizi iten dena, kodigoa, lehenbizikotik atea nun, eta gero in nitun bizpahirulau buelta. Binon nere senarrak len bino len etorri behar ginuela ta, hemen atea nuen azkenean.

Goiz hasia kanpoan lanean.-

Hamahiru urtetan Sarara atea nintzen. Nexka bat nahi zutela-ta itxera etorri zirenen, -ni atrebida izan naiz sortzetikan dudike ta-, «nik joan nahi dut» erran nuen seidoan. Dena den, joan zen nere



ama nerekin Sarara. «Horra, hor duzu, ama bazineke bezala kontu zazu, hunela ta hunelako ambiente-kok gara gu ta nahi dut hunela seitzia». Horrela akautu zuen amak. Saran egundaino ez naiz ni ateri, eta «para el tilin-tilin de la noche» . . . , iten zen angelusa eta angelusako itxin behar nuen. Saran ikasi

nuen, bate hek uste gabe, periodikoa leitzen, frantzesa. Hola hemezortzi urtik arte.

Hogeamaseiko gerrateak Sarako egonaldia moztu zion. Gerraldiko urteak Etxalarren egin ondoren, Donostian urte pare bat jostun lanetan aritu zen. Etxalarrera itzulirik, hiru bat urte dendari eta jostun

Testua eta Argazkiak:
 PELLO APEZETXEA

▼ Etxebizitzak

• **90 m²**ko pisua salgai Arraiotzen. 3 logela, egongela, jangela, sukaldea, bainua, trasteleku, ganbara, propano kalefakzioa eta baratzarekin, 6.800.000 pztatan. Tfa: 630016.

• **Lesakan**, lokalak alokatzen ditugu Erosle ondoan. 637404 Maldaerrek S.A.

• **Etxalar, Zugarramurdi** aldean baserria alokatu nahi nuke (mendian isolatu). Geroago erosteko asmoarekin. Birtartekaririk gabe. 943-616072 (4,30-8) Imanol.

▼ Lana

• **Lana** egiteko prest nago. Kamioi eta autobus karneta daukat. Tfnoa: 637034

▼ Denetarik

• **Ekipoak** alokatzen dira udalentsat, bertsolarentzat, mitinetarako, etabar. Laia musika dendara deitu. 631059.

• **4 ardizakurkume** ematen dira.. Ederrak eta politikak. Tfnoa: 63 07 36.

• **Lesakan** lokal bat traspasatzen da. Deitu 10tik 1etara eta 5etik 8etara 637410 tfnora.

• **Beran** 2 urteko zakur bat galdu da. Beltza. Ez da arraza garbikoa. 631316 tfnoa. Diruz eskertuko da.

▼ Salerosketak

• **Balay** labadora eta bago eta kristalez egindako mahai baxua salgai. Tfnoa: 581034 (Zuraurre).

• **3 urtetako zezen** gorria salgai. Tfa: 599114 (Urdazubi, arratseko 10etatik aintzina)

• **Guti** erabilitako Ciclone gitarra eta Caiman anplifikadorea salgai 40.000 pztatan. Interesatuak 637948 tfnora deitu (eguerdian 1,30ak aldera).

• **Bi kotxe** mandoekin gidatuak; bat gasolinazkoa eta bestea bateriak salgai. Gutxi erabiliak eta prezio onean. Tfnoa: 627503 (gauetan).

• **220 litrotako** esne tankea (Hapy markakoa) salgai. Tfnoa: 615043.

• **Sofa - ohatzea**, berria bezala, salgai 30.000 pztatan. Tfnoa: 630552.

• **“Documentos”** 18 tomoko kolekzioa eta ingeles kurtsoa (Lingua phone etxekoa) kasetekin salgai. Tfnoa: 510379.

• **7 urteko** neskatxa barentzat bizikleta bat erosiko nuke. Tfa: 631188.

• **Montesa H-7** eta Yamaha XT 350, NA-AD salgai. Biak egoera onean saltzen ditut eta merke. Tfnoa: 452292.

• **2,90 x 2,40** metrotako moblea salgai. Armario altuak, eskritorioa eta bi ohe tiki. Prezio oso onean. Tfnoa: 61 07 91.

• **4 urtetako** asto ederra salgai. Tfnoa: 61 50 16.

• **Minbrezko** mobleak salgai: armarioa, mesila eta apalak. Deitu 637818 tfr.

• **4 urteko** asto eder bat eta biko ahari bat salgai. Modu onean. Tfa: 634170.

• Ahuntz bat eta bi antxume salgai. Deitu 513286 tfnora. (Betelu).

▼ Harremanak

• **Oitzko** Gabino, Esperantza, Jose Luis, Juan Luis eta iloba Urkorentzat. Zorionak denontzat eta muxu haundi bat. Julia.

• **Lesakako** Aintzane Goñirentzat: Zure 16. urtearengatik... Zorionak!!! (martxoak 4). Lasai berriz elkartuko zarete San Miguelen. Zure lagun mina.

• **Oitzko** Nekaneri zorionak bere urtebetetzearengatik eta beti horren kontent segi dezala, Jabier B. ezagutzearengatik. Zuk ezagutzen duzun bat.

• **Estitxu** Arozena bertsolari ospetsuari: gartzelero alu hauengatik atzerapen haundiz jasotzen ditut zure eskutitzak. Badakizu alperra naizena baina idatziko dizut. Muxu haundi bat zuri eta familiari. Burgosko gartzelatik zure lehengusutxoak.

• **Urdazubiko** Miren S. rentzat, zorionak zure urtebetetzearengandik eta muxu bat. Zure Urdazubiko lagunak. Edurne, Izaskun eta Arantxa.

• **Eratsungo** Pakita Eskuderorentzat: Zorionak urtebetetzean. Zure guraso, senar eta seme alabak.

• **Mamen** Utergarentzat: zure urtebetetze egunean zoriondu nahi zaitugu. Shanti eta Leire.

ORRIALDE HONETAKO IRAGARKIAK DEBALDEKOAK DIRA. TESTUA IDATZI ETA IGORRI GURE BULEGOETARA EDO TELEFONOZ DEITU.

Testua:

ttipi-ttapa

Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

ttipi-ttapa ZEURE ETXEAN DEBALDE HARTU NAHI BADUZU, EMAN ZURE IZENA!!

IZEN-DEITURAK

HELBIDEA

HERRIA


ttipi-ttapa


Herriko Etxeko Plaza 1, 31780 BERA Tfnoa: 631188

Zein da Bidasoa-Leitzaran aldean
gehien irakurtzen den prentsa?

ttipi-ttapa; noski.

Beraz, zure publizitatea *ttipi-ttapan*.
Inbertsiorik onena!







KATTU OSTATUA JATETXEA

- Karta
- Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 **LESAKA**



ZURE BAINUA ALDATZEA
PENTSATZEN BADUZU ZATOZ
GUREGANA:

*MOBLEAK, ISPILUAK, GRIFE-
RIAK, MANPARAK ETA BEHAR
DITUZUN OSAGARRI GUZIAK
DITUZU*

Juan Arana, 3
Tfnoa: (943)
61 17 67
IRUN

ALMACENES ETXANIZ, S.A.

L e s a k a k o Iturria anaiak